
ZENBAKI HONETAN

Hona hemen *Jakin* aldizkari berrituaren laugarren zenbakia. Zenbakiz zenbaki langintza ezberdinari heldu izan diogu. Zenbaki honetaz, lehenengo urtea betetzen dugu. Euskal kanta berriaren fenomenoaz aztertzen dugu oraingoan. Euskarari, euskal kulturari eta herriaren burrukari kanta berriak eskaini dion laguntza ukaezina da. Gai hau aztertzeko, protagonista eta eza-gutzaile zenbait bildu dugu.

Kanta berriaren historiaz arduratu da Gorka Knörr, haserako zenbait puntu, belaunaldien eta taldeen sorrera eta joerak azpimarkatuz.

Xabier Letek, euskal kantaren mugimendu osoaren azpiko intentzioak, politikazko oinharriak, kantarien eboluzio eta burruka ideologikoa, herriaren eta kantarien arteko harremanak.

Luis Iriondok, kanta berriaren mugimendua epez epe harturik, garai bakoitzeko lorpenak eta hutsak kontsideratzen ditu; eta azkenean, egiazko kantaritza on bat nahi bagenu, geureganatu beharko genituzkeen balioak, osakuntzak, bide berriak.

Kanta honen berritasuna zertan den aztertzen du Joxe Antonio Artzek, eta, gero, pausa gehiagorik, mugimendu honen azterketa estetikoan gelditzen da.

Kantaren ingurura ere itzuli bat egin nahirik, Jose Ramon Belokik honen azpiegitura, disketxeen hauzia, jaialdien funtzioa eta funtzionaketa, iratiaren laguntza aztertu ditu.

Eta azkenik, Iñaki Zubizarretak, orain arte egindakoari kritika egin ondoren, geroari buruz norabide berri batzu markatzeari ekiten dio arretaz.

Bestetan bezala, monografia osatzeko eta burutzeko, biblio-

grafia ematen dugu. Baina oraingoan artikulua besterik ez dugu jaso, euskal kantari buruz ez bait dago libururik, guk eza gutzen dugunik behintzat.

Orain eta hemen sailean, gure gizartearen eta kulturaren ingurunea ukitzen duen zenbait arazo eman nahi izan dugu, laburki bederen, gogoeta luzeagoen aurrean gisa.

Gaiak saila mardulxeago ematen dugu oraingoan. Bi gai dira. Lehenengoan, gerra aurreko euskal gizarteak bazterturik utzi zuzen gizon baten eta honen obraren berri ematea da Manolo Pagolaren intentzioa. Bigarrenean, Gramsciren heriotzaren 40 urte direla eta, Joxe Azurmendik marxismoaren teoriko honen teoriaren azalpen bat eskaintzen digu, eta ondoriobidez edo, euskal ezkerren azterketa larri bat.

Liburuak izeneko sailak ere badu oraingoan nobedaderik. Liburuak beranduegi iritsirik, Ibon Sarasolak ez du berea burutzerik izan. (Bestalde, sail honek birplanteaketarik ere beharko du, seguruenik). Oraingo zenbaki honetan, bada, J. A. Otaegik liburugintzaz prestatutako gogoeta sueto batzu aurkeztu ditugu.

Kultur bideetan deitu sailean, kultur bide minenetako bat plazaratzen dugu, Alfabetatze-Euskalduntzea. Mugimenduaren bizitasunaren adierazgarri apartak dira aurkeztu diren datuak, xifrak, beren sailean berez mintzatzen direnak. Alfabetatzeko Buruzagitzako Pedro Mari Legarretak gertatu du lana.

Gutunak sailean, Euskal Unibertsitatea dela eta beste gutun bat ateratzen dugu, Alfontso Irigoienena hau.